

Euskararen Gaitasun Agiria

IDAZLANA 04-10-02

- 1. Argi idatzi behar da, eta albait garbien.*
- 2. Idazlanak gutxienez 300 hitz izan behar ditu.*
- 3. Idazlanaren kalifikaziorako ondoko hiru alderdi hauek izango dira ardatz:*
 - a) gaiaren eraketa eta garapena;*
 - b) hizkuntza-aberastasuna eta zehaztasuna;*
 - c) zuzentasuna.*
- 4. Orrialde bat izango duzu gidoia egiteko, apunteak biltzek ... Ez da zuzenduko.*
- 5. Hurrengo orrialdeetan bi gai proposatzen zaizkizu, bat aukeratu eta garatzeko. Gaiak garatzeko, laguntza moduan, dossier bana eta puntu batzuk dituzu: galderak, gogoetak, iritziak... Ez dira nahitaez kontuan hartu beharrekoak; zuk zeuk aukeratutako bestelako ikuspuntu edo alderdi batzuetan oinarriturik ere egin dezakezu.*
- 6. Aukeratutako gaia garatzeko iritzi askatasuna duzu. Beti ere, begirunez joka ezazu: saihestu jarrera sexistak, homofoboak, arrazistak...*

**Jateko ohitura kaltegarrien
ondorioz loditasun arazoak
herrialde aberatsetan**



Iturria: Herria, 2004-1-18


SHAWN ANAZON / AP

Esaerak dioenez, "Jan gabeko ederrik ez"



Iturria: Egunkaria, 2003-1-12

**Zahar zein gazte, gizon zein emakume,
denok estetikaren menpe**



Iturria: Berria, 2003-12-3

*"2030ean herritarren %60
lodiak izango dira"
(Europako Elkartea)*

*Euskal Herrian duela 15
urte baino hiru bider une
lodi gehiago*



Iturria: Berria, 2003-12-3

Orri honetan dituzun testuak irakurri ondoren, idatz ezazu gaiari buruz (300 hitz, gutxienez). Ondoko puntu hauek erabil ditzakezu:

- Itxura osasuna baino garrantzitsuagoa ote?
- Muturreko jarrerak: gizentasuna eta anorexia.
- Jateko ohituren bilakaera.
- Dieta kontuan, entzuten ditugun-aholku askok ez du oinarri zientifikorik.
- Gaurko eredu estetiko eta horren inguruko merkatua.



NABARRA aldizkaria 28. 2003ko uztaila.

"Nik ez diot heriotzari beldurrik, baina ez dut han egon nahi hori gertatzen denean."

(W. Allen)


"Sanlito, adiskidea, denak berdintzen ditu heriotzak: handikiak eta morroiak, aberatsak eta behartsuak."

(Cervantes: *Kixotea*)



NABARRA aldizkaria 28. 2003ko uztaila.

Herri txikietan heriotzak zentzu sentikorragoa du; hiritan, aldiz, inpersonalagoa.



NABARRA aldizkaria 28. 2003ko uztaila.

"Bizitza baloratzen ez duenak ez du merezi bizitzea"

(Leonardo da Vinci)

Orri honetan dituzun testuak irakurri ondoren, idatz ezazu gaiari buruz (300 hitz, gutxienez). Ondoko puntu hauek erabil ditzakezu:

- Mugarik gabeko bizitzak ba al du zentzurik? Muga bat izateak ematen omen dio bizitzari balioa.
- Heriotza mota guztiak berdinak?
- Erlijioa, fedea: bizitza ondorengo itxaropenari eusteko habea.
- Gorpuarekin zer egin? Hilobiratu, erraustu, Ganges ibaian hondoratu...
- Heriotza onartzen ikas daiteke?